

Tolosako Running festa

Tolosako Udalak Tolosako I. Running festa antolatuko du 2026 urteko maiatzaren 23an.

1. Data eta lekua

2026 urteko maiatzaren 23a, arratsaldeko 17:00etan Tolosako Berazubi Estadioan.

2. Frogaren xehetasunak

Lasterketa Berazubi Estadioan hasi eta amaituko da eta 5000 metroko distantzia izango du. Irteera Berazubi estadioan izango da, ondoren zirkuitua herritik zehar joango da eta amaiera Berazubi estadioan bertan izango da.

3. Izen-ematea eta prezioa

Lasterketak irteera bat izango du baina 2 kaxoietan banatuta egongo da:

- 1.kaxoian 25 minututik behera korri egin nahi dutenak kokatuko dira.
- 2.kaxoian froga 25 minutu eta 1:15:00 artean egin nahi dutenak kokatuko dira.

2.kaxoian froga oinez egiteko aukera egongo da, betiere ordu eta 15 minutuko denbora maximoan betetzen bada zirkuitua (15:00/km erritmoa zehazki).

Prezioak ondorengoak izango dira:

- Lehen kaxoia (Bixi-bixi) : 12€
- Bi dortsak: 18€ (12+6)*
- Bigarren kaxoia (Lasai-lasai): 8€

*Izen-emate honek 2 dortsak jasoko ditu: 1 lehenengo edo bigarren kaxoirako izango da (bietako edozeinean hartu ahal izango du parte) eta bestea 2. kaxoierako. Izen-emate honen helburua argia da: animatu ezazu norbait (familia, lagunak...) running mundura gerturatzea.

Ordainketa egin ondoren izen-ematea guztiz amaitutzat emango da. Ez dira bajak onartuko ezta ere itzulketak egingo. Izen-ematea egiteko gutxieneko adina 16 urtekoa izango da.

4. Dortsala eta poltsa jasotzea

Dortsala eta korrikalariaren poltsa momentu berean banatuko dira, frogaren egunean bertan. Hauek jasotzeko, 15:00-16:30 ordutegia egongo da eta izen-ematearen agiria edota NAN-a aurkeztuko beharko da jasotzeko momentuan.

5. Dutzak eta kontsignak

Dutxa zerbitzua Berazubi estadioan bertan egongo da, 17:00etatik - 19:00etara.

Kontsigna ere Berazubi estadioan bertan izango da, 15:00etatik-16:30etara gauzak gordetzeko eta 17:30-18:30 gauzak jasotzeko. 16:30-17:30 tartean ez da kontsigna egongo.

6. Kategoriak eta sariak

Korrikalarien adina 2026 urteko abenduaren 31an duten adina hartuko da kontuan. Katego-

ria hauek egongo dira:

- Sub 23 (2003 urtean edo beranduago jaiok)
- Senior
- Beteranoak: 45 urte baina gehiago (1981 urtean edo lehenago jaiok)
- Tolosarrak (Tolosan erroldatuak).

Sariak ondorengoak izango dira:

- Sub 23: aurreneko emakumezkoa eta aurreneko gizonezkoa
- Senior: aurreneko, bigarren eta hirugarren emakumezko eta gizonezkoa.
- Beteranoak: aurreneko emakumezkoa eta gizonezkoa
- Tolosarrak: aurreneko emakumezkoa eta gizonezkoa

Sarien entrega azkeneko korrikalaria iritsi eta ondoren egingo da, eta antolakuntzak erabakiko du zein izango den emango diren garaikur eta sariak.

7. Datuen-babesa

Frogan izena ematearekin partehartzaileak frogaren sailkapena publikatzea onartzen du. Frogako datuak ezingo dira erabili hauek ez diren beste helburu batzuetarako erabili.

Datuen tratamendua:

- Arduraduna: Tolosako Udala
- Datuen erabilera: froga honetarako erabilitako datuak.
- Erabiliko diren datuak: datu sinpleak izango dira: izena, abizena, jaiotze-data...

8. Bestelakoak

-Antolakuntzak parte-hartzaile guztiei mediku-azterketa bat egitea gomendatzen die. Norberak bere gain hartu beharko du kirol jarduerak dakarren arriskua.

- Antolakuntzak saihestu egiten du parte-hartzaileek bere buruari edo beste hirugarren bati egiten diezaiokeen galera, kalte, edota lesioei buruzko erantzukizun oro.
- Parte-hartzaile guztiek, parte hartzeagatik, araudi hau onartzen dute. Bertan agertzen ez dena IAFFen araudia kontuan izanda ikusiko da.